



## **K bulegoa**

*saio irekia negu gorrian*

**Artista plastikoen artikulazioa Gipuzkoan: aukerak eta erronkak**

2023ko urtarrilaren 31

*una sesión abierta invernal*

**La articulación de las artes plásticas en Gipuzkoa: oportunidades y retos**

31 de enero de 2023

**Saio irekia** negu gorrian.

## **Artista plastikoen artikulazioa Gipuzkoan: aukerak eta erronkak**

Urte pare bat pasa dira artista plastikoen artikulazioa saio ireki batean hizpide izan genuenetik. Bertan parte hartu zutenek hariari tiraka jarraitzea eskatu ziguten. Denbora tarte horretan gauza asko gertatu dira han eta hemen, tartean ekimen berriak sortu dira eta horren berri eman nahian beste saio ireki bat antolatu genuen, arte plastikoen egungo egoeraz mintzatzeko asmoz.

Konfinamendu garai bete-betean eratu zen “Artistak-etc” plataforma, eta garai berdintsuan ere abian jarri dira beste bi ekimen: [Zapart](#) Euskal artisten sarea eta [Eskuahaldunak](#) Euskal eskultoreen elkarte. Eragile horietako kideak saiora bildu ziren beren ekimen eta asmoen berri ematera. Hamabi bat eragile elkartu ginen K bulegoaren egoitza berrian, Donostiako Alde Zaharreko Santa Teresa komentuan.

Betiko aurkezpenak eginez urratu genuen hizketaldia, elkar ezagutzea ezinbestekoa baita, egin daitezkeen lanketen gaineko hausnarketan murgildu baino lehen.

Honako hauek izan ziren saioan partekatu genituen ideiak eta beharrak.

Gipuzkoako kultur sektorearen artikulazioari begira, beste diziplina batzuk sareatuagoak daudela nabariki ikusi zen pandemia garaian. Instituzioek hainbat elkarterekin harremanetan jartzea garrantzitsua izan zen, sektoreko zenbait arlo aztertu ziren datu eta egoerak partekatuz, horrela lagungarriak izan zitezkeen neurriak hartze aldera. Horren harira, aurreikusitako hutsuneetako bat betetzeko xedez sortu zen “Artistak-etc” elkarte. Ekarpena baliotsua izan zen: ikusizko arteen egoera adierazi eta premiazko laguntzen hutsuneak ikusita neurri zehatzak proposatzeko. Garai haietan Eusko Jaurlaritzarekin harreman estua izan zuten eta egun elkarte pittin bat geldirik dagoela aitortu zuten, eragileek bizirauteko premiak larrituta, zaila dutelako kudeaketari denbora eta lana eskaintzea.

Zapartekoek, aldiz, beraien jardueraren berri ematearekin batera, sarera biltzeko gonbita luzatu zuten. Halaber, aditzera eman zuten Frantzia erabiltzen den “Kalkulagailu formula” Euskal Herriko testuingurura moldatzen ari direla. Arte plastikoen eremuan, sorkuntza eta garapen artistikoari lotutako lanen balioa definitzeko tresna lagungarria izango delakoan daude.

Eskuahaldunak elkartekoak orain urtebete sortu dira, eta dagoeneko bi erakusketa handi antolatu dituzte. Gainera, eskultoreen lanak ikusarazteko asmoz plataforma digital bat sortu dute. Etorkizunean, erakusketak egiten jarraitu nahi dute, euskal eskulturaren garrantzia berreskuratuzeko xedez.

Gipuzkoako artista plastikoen artikulazioari begira, honako baliabide eta lanketa jo dira beharrezkotzat.

-Plataforma digital bat sortu beharko litzateke artista plastikoak ikusarazi eta haien lanak aurkeztu zein saltzeko. Honek elkarlana sustatuko luke eta dagokion balioa eta dimentsioa emango lioke egun bizirik dagoen artista plastikoen sareari.

-Erakusketa lekuak eta sorkuntzarako aproposak diren espazioen beharra agertu da berriz ere. Gaur egun Gipuzkoan dauden azpiegiturek ez dute sorkuntza plastikoaren garapena osotasunean ahalbidetzen. Dimentsio handiko espazioak behar dira eta berezko makineria. Ezagutza teknikoak ere ondare dira. Zaintza garrantzitsua da. Ezagutza horiek zabaltzeak praktika batzuen jarraipena ziurtatu ahalko luke.

-Tamaina handiko artelan plastikoak lekualdatzeak baliabide zehatzak eskatzen ditu, eta horrek bilakaera zaila dakar lanak garatzean.

Azkenik instituzioei zein erakundeei babesa eskatzen zaie, hala nola komunikazioa erraztea, eskaeren aurrean entzute aktiboa eta erantzunak egon daitezen eta antolatzen diren ekitaldietan parte har dezaten, egiten den lana gertutik ezagutu ahal izateko.

Parte hartzaileon artean kontaktuak parekatzea adostu genuen, elkarrekin harremanetan egoteko. Horrela Gipuzkoako artista plastikoen artikulaziorako lagungarriak izan daitezkeen ideia zein egitasmoen berri emango diogu elkarri.

**K** /  
**BUL**  
**EGO**  
/ **A**



**Kulturari adi /  
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa

## Una sesión abierta invernala.

### La articulación de las artes plásticas en Gipuzkoa: oportunidades y retos

Han pasado un par de años desde que dedicamos una sesión abierta a la articulación de las y los artistas plásticos/as. En aquella ocasión, las personas participantes nos pidieron que retomáramos el tema más adelante. A lo largo de este tiempo han sucedido muchas cosas, por ejemplo, han surgido nuevas iniciativas, y para dar cuenta de ello y actualizar la reflexión, organizamos una nueva sesión abierta sobre la situación actual de las artes plásticas.

En plena época de confinamiento se creó la plataforma “Artistak-etc”, y en la misma época nacieron otras dos iniciativas: la red de artistas vascos [Zapart](#) y la asociación de escultor@s [Eskuahaldunak](#). Personas vinculadas a estos colectivos se acercaron hasta la nueva sede de K bulegoa en el convento de Santa Teresa de la Parte Vieja donostiarra donde se celebró la sesión. Dieron a conocer sus iniciativas y proyectos, y participaron en la reflexión junto con el resto de agentes participantes, 12 personas en total.

Tras las presentaciones de rigor –el conocimiento mutuo es imprescindible–, comenzamos la reflexión sobre las posibles tareas a realizar para la articulación de las artes plásticas.

Estas fueron las ideas y necesidades que compartimos en la sesión.

De cara a la articulación del sector cultural en Gipuzkoa, durante la pandemia se observó que otras disciplinas tienen un grado mayor de trabajo red. En ese contexto de crisis sanitaria, fue importante que las instituciones se pusieran en contacto con varias asociaciones, compartiendo datos y situaciones en las que se analizaron diferentes áreas del sector, con el fin de adoptar medidas que pudieran paliar los efectos de la Covid-19. En este sentido, la asociación “Artistak-etc” nació con el fin de dar respuesta a varias de las necesidades detectadas. La aportación fue valiosa porque sirvió para visibilizar la situación de las artes visuales y proponer medidas concretas de primera necesidad. En aquellos tiempos mantuvieron una estrecha relación con el Gobierno Vasco y reconocen que actualmente la asociación está menos activa, porque las y los agentes, preocupadas por la supervivencia, tienen más difícil dedicar tiempo a la gestión de la plataforma.

Por su parte, las representantes de Zapart, además de informar de su actividad, invitaron a unirse a su red. También comentaron que están adaptando al contexto vasco la “Fórmula de Calculadora” utilizada en Francia. En el ámbito de las artes plásticas consideran que será una herramienta de apoyo para la definición del valor de los trabajos vinculados a la creación y desarrollo artístico.

La asociación Eskuahaldunak se ha constituido hace un año y ha organizado ya dos grandes muestras. Además, ha creado una plataforma digital para visibilizar las obras de los escultores. En el futuro se pretende continuar con el trabajo expositivo con el objetivo de recuperar la importancia de la escultura vasca.

De cara a la articulación de las y los artistas plásticas/os en Gipuzkoa, se consideran necesarios los siguientes aspectos.

-Debería crearse una plataforma digital para visibilizar el trabajo de las y los artistas plásticos/as, y así presentar y vender sus obras. Esto fomentaría la colaboración en la comunidad artística, y dotaría de valor y dimensión a la actual red de artistas.

-Vuelve a surgir la necesidad de más espacios expositivos y de creación. Las infraestructuras actualmente existentes en Gipuzkoa no permiten el desarrollo integral de la generación plástica. También existe una necesidad de espacios de grandes dimensiones y maquinaria propia. Los conocimientos técnicos también son patrimonio. Los cuidados son importantes. La difusión de estos conocimientos podría asegurar la continuidad de algunas prácticas.

-El traslado de obras plásticas de gran tamaño requiere recursos específicos, lo que complica la gestión de los proyectos.

Por último, se pide apoyo tanto a las instituciones como a otras organizaciones en aspectos como facilitar la comunicación, que haya escucha activa y respuestas a las demandas de la comunidad, y que participen en los eventos que se organicen, para conocer de cerca el trabajo que se hace.

Acordamos compartir los contactos de las personas participantes para seguir conectados. De esta forma podremos poner en común ideas y proyectos que contribuyan a la articulación de las y los artistas plásticos en Gipuzkoa.



**Kulturari adi /  
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa